



Bainuetxearen ohiartzuna

ZALDIBAR

Ezaugarriak

Jatorrizko izena Zaldia bazen ere, herriko erdigunean izandako bainuetxearen eraginez, 1923an Zaldibar izena jartzea erabaki zuen udalak. XIX. mendearen erditik, trenean bidaiari asko etortzen zen herrira, atsedean hartzera batzuk eta osasunerako ur tratamenduak hartzera beste batzuk. Hotela ere eraiki zen. 100 urte dituen ospital psikiatrikoak hartu zuen bainuetxearen lekua gero.

Bisita gidatu honetan, puntu garrantzitsuenetako bat bainuetxe-ospitala ingurua izango da, baina Miren Maortua edota Bitor Garitaonandiak hezkuntzan eta kulturgintzan egindako ekarpena gogoratuko dugu.

Zaldibar leinuaren Olazar dorretxearen aztarnen inguruan hasiko dugu bisita. Elizako aterpeko frontoian pilota partidu labur bat jokatzeko astia ere izango dugu.

Bisitan nabarmentzekoak:

- Olazar dorrea
- Zaldia elizateko plaza
- Bainuetxea-ospitala



 Irteera puntua: Olazar dorrea

 Iraupena: 90 minutu

 Zailtasun maila: Erreza

 Taldea: Gehienez 25 pertsona

 Hizkuntza: Euskara, gaztelera

 Prezioa: 185 € (BEZ barne)

Oharra

Bisita hau zure beharrianetara egokitzen ez bada, egiguzu kontsulta eta aztertuko dugu egokitzeko aukera. Eskaintzen ditugun bisita gidatuez gain, norbere beharrianen neurritik bisitak prestatzeko aukera eskaintzen dugu. Idatzi edo deitu lasai: info@gerediaga.eus / 946818066